

Euskararen esparru berriak

Joseba Arregi

Egoera zailean aurkitzen den hizkuntza batek era guztietako erremedioak behar ditu. Ohikoak, guztioi bururatzen zaizkigunak, soziolinguistikatik ikas ditzakegunak, baina agian baita ohizko pentsamoldeak hausten dituenak ere.

Euskara politikan badaramatzagu hainbat urte, hainbat ahalegin egin dira eta diru askotxo gastatu ere egin da eta egiten da urtez urte. Egin den eta egiten den guztia ondo egon daiteke, nahiz eta geroz eta beharrezkoagoa den astiro eta larritasunik gabe daramagun bidearen azterketa kritikoa egitea.

Ez naiz ordea ni orain horretan hasiko. Beste zerbait da egin nahi nukeena: daramagun bidearen sustraian dauden eta gehienetan adierazi gabekoak diren iritziak aztertzea noski.

Euskal Herri euskalduna nahi dugu. Gure gizartean ezagutzen diren euskararen aldeko hizkuntz politika guztiek nahi dute Euskal Herri euskaldun bat. Nola da, edo izango da, ordea Euskal Herria euskaldun? Biztanleek euskaraz bakarrik hitz eginez? Euskal Herriko hiritarrek bi hizkuntza ofizialetan hitz egiteko gai izanez? Elebitasuna bada helburu, nola bizitzen da elebitasun hori? Lehentasuna kasu eta funtzio guztietan euskararentzat eskatuz eta proposatuz, orain dela gutxi Euskaltzaindiako presidenteak zioen bezala?

Edo pentsa eta irudika daitezke beste egoera

batzuk ere, hiritarren eskutan utziz bi hizkuntzetan duten gaitasunaren erabilera. Edo ta baita ere, etorkizunean euskara bezalako hizkuntza txiki bati toka dakioken egoera multifuntzional bat pentsatzea eta horretarako prestatzea, garaiz egin beharreko aukerak eginez, hau da, euskararentzat eta bere etorkizun ahalik eta normalduenarentzat ezinbestekoak diren funtzioak definituz?

Askotan sortzen den susmoa da hizkuntz politikan aukerak, erantzunak, egin beharrekoak argi eta garbi daudela, eta eztabaidatu behar den bakarra zera dela: noiz, nola, zenbaiterainoko borondatez eta baliabidez lanari ekin.

Iruditzen zait ordea egoera ez dela hain argia. Eta euskarari dagokion hizkuntz politikak ezer behar baldin badu zuhurtasuna dela, eta buruargitasuna. Eta honek galderak eta galderak egitera behartzen gaitu, inongo argitasunik izan nahi baldin badugu eta gure ekintzek itsumustukoak izan nahi ez baldin badute.

Galdera guzti horien artean badago bat bereziki azpimarratu nahi nukeena, eta aukera honetarako eskura eman zaiguna. Ekarpen hau eskatuz zuzendu zaidan eskutitzean gidoi modura proposatzen den bigarren puntuak honelaxe dio: “2.- *Beste kulturei eta kultura horietako sujetaoei zein leku ematea komeni den*”.

Esaldi honek hasieratik beretik bi zalantza sortzen ditu nigan. Beste kulturak eta kultura



“Integrazioa, bi taldeena, elkarren aberasgarri modura ulertzen da, edo batak besteari bere nahimena ezartzea da, eta ez integrazioa”.

horietako sujetoak aipatzen direnean ez dakit alemaniarrez eta ingelesez ari den, edo beste edonolako kultura eta kulturkidez, ala, zuzenki esaten ez bada ere, iparraldean frantses kulturadun huts direnez eta hegoaldean espagnol kulturadun huts direnez ari den. Bigarren aukera hau dela esan nahi dena onartzen dut eta horrela jarraituko dut.

Bigarren zalantza berriz beste hau da: kultura eta kultura horietako sujetoei zein leku ematea komeni den galdetzen da. Euskaldun ez izanik eta euskaltzale ere ez diren hiritarrak bildu nahi dituen hizkuntz politika batean galdetu daiteke ea horiei tokiren bat ematea komeni den? Edo ta nahitanahiez eman behar zaie toki bat, eta ez txikiena? Gerta daiteke, ordea, hizkuntz politika euskaldunentzat eta euskaltzaleentzat bakarrik egin nahi izatea, edo egin behar dela uste izatea, eta gainontzekoak sujetoak ez baina horrela moldatutako hizkuntz politika baten objeto huts bezala ikustea...!

Harridura ikurra jarri diot aurreko esaldiari, baina ez dakit zergatik harritzen naizen, ziur bainago gure hizkuntz politika guztia euskaldun eta euskaltzaleena dela euskaldun eta euskaltzaleentzako, eta ez duela inondik inora ere kontuan hartzen askatasun eta borondate librez hornitutako sujeto batzuez ari garela (eta ez gutxi) Euskal Herria euskaldundu nahi eta behar dugula diogunean.

Beste kultura eta kulturetako sujetoak guk sentitutako, baina beraiek bete beharreko obligazio baten jabe egiten ditugu: euskaldun daitezela.

Hizkuntz politika norabide bakarreko mugimendu bezala ulertu eta planteatu beharrean

norabide bikoitzeko higidura lez ikusten saiatuko bagina, geure buruari galde egin beharko genioke ea zergatik eta nola, eta zertarako, piz daitekeen ez euskaldun eta euskaltzale ere ez direnengan euskal munduan, honek esan nahi duen guztiarekin, sartzeko gogoia eta borondatea.

Egiten ditudan galdera hauen arrazoia bakarra da: bizi dugun egoeratik abiatuz gizarte bat sortu nahi badugu ezin burutuko dugu helburu hori zati batek besteari bere borondatea inposatuz, gizartearen zati batek, nahiz eta eskubide historiko guztiak izan, bestea besterik gabe xurgatuz. Alderantziz baizik. Galdera hauek egitearen funtsezko arrazoia gaur egungo hizkuntz politikan ahotan gehien hartzen den arazoa da erabilerarena. Euskal Herria euskaldundu nahi bada, lehen aipatutako xehetasunak orain alde batera uzten ditudalarik, euskara normaltasun batez erabili beharko da eguneroko bizitzan.

Denok kezkatzen gaitu ordea azken urteotan ikusten ari garen bilakaerak: erabileraren haunditzea eta indartzea ez doala bat, ezta gutxiago ere, euskararen ezagueraren abiadarekin. Eta iruditzen zait gainera, geroz eta garbiago dugula erabilerari ezin dela, edo oso nekez administrazioetik bultzatu, ezin dela mekanikoki bermatu.

Iruditzen zait hizkuntza baten erabilerak ez duela misterio gehiegirik: hizkuntza bat gizarte hizkuntza den heinean, gizarteak onarturik dagoenean erabili egiten da, gizartezko izate horrek, gizarteak onarturik egoteak berak egiten baitu komunikazioaren presioa, presio hori norbanakoaren askatasun librean txertatuz. Hizkuntza baten erabilerari bultzatu nahi bada beraz,

beharrezkoa da gizartezko bihurtzea, gizarteak onarturik egotea. Hori da euskarari falta zaiona, eta faltako zaio baita etorkizunean ere gure gizartean bizi diren beste kultura eta kultura horietako sujetoei behar den tokia ematen ez zaien bitartean, eta ez komeni zaiena bakarrik. Beste kulturei eta kultura horietako sujetoei tokia eman behar zaie, besterik ez bada, euskara beragatik, bere erabilera normaltzeko hain beharrezkoa, ezinbestekoa den gizartezko onarpena eta onarpen horretatik datorkeen komunikazio presioa bere alde izan dezan.

Helburu hau ordea ez dugu sekulan lortuko hizkuntz politika euskaldun eta euskaltzaleen gogo, borondate eta beharizanetatik bakarrik ulertzen baldin badugu, eta etorkizuneko euskal gizarte plurala osatu behar duten guztiak hizkuntz politikan inplikatzeko ez baditugu. Inplikatu ahal izateko, ordea, gutxienean gogoan izan behar dira, kontutan hartu behar ditugu, eta ez noski gure nahimenezko objektu bezala, pertsona libre bezala baizik.

Gure hizkuntz politikak euskal gizarte bat sortzeko helburua du, eta gizarte hori elebiduna izatea nahi litzateke. Helburu hori lortzeko bidean pluraltasuna eta errespetua azpimarratzen ditugu, euskara guztion delako, guztion izan behar duela errepikatzen dugu behin eta berriz.

Ez nago oso ziur ordea, plurala izan behar duen gizarte bat hori aipatzen dugunean, gizarte hori ez ote den guk euskaldun eta euskaltzaleok pentsatutakoa bakarrik, ez euskaldun, ezta euskaltzale ere ez direnek proiektu horretan inola ere parte hartzen ez dutelarik, ez bada oztoporik ez jartzearena eta beraien burua, beraien identitatea aldatze prozesuan eragozpen eraginkorrik ez jartzearena, hau da euskaldun eta euskaltzaleen borondatea ixilik onartzea.

Euskal Herrian plurala den gizarte bat osatzen joateak beste zerbait eska dezake ordea, bilakaera guztia elkar aberasten joatea bezala ulertzea, eta ez alde baten nahia burutzea, bestearen onarpen ixilarekin.

Lantxo honen eskaera gutunera nator berriro. Bertan, eta hizki nagusietan, zera esaten da: "EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA GIZARTE INTEGRAZIORAKO BIDE". Esaldi horretan onartzen da gure gizartea integrazio beharrean dagoela, ez dagoela integraturik. Eta modu oso egokian planteatzen da euskarak eta euskal kulturak badutela zer ikusirik gizarteak oraindik lortu ez duen integrazio horretan.

Integrazio hitza aipatzen dugunean, ordea, ez dakit beti eta denok gauza bera adierazi nahi dugun. Norbanako bat integra daiteke talde batean, batzuek beste talde horren egitura, pentsaera, ohitura eta adierazgarri guztiak bere eginez. Dudarik ez dago honelako banakako talde integrazio prozesuetan ere beti egoten dela taldean nolabaiteko aldaketaren bat, oso txikia bada ere,

norbanakoaren eraginez.

Integrazioa, ordea, gizarte batean elkarren ondoan bizi diren bi taldeentzat planteatzen bada, nahiko zaila iruditzen zait niri integrazio hori lehen aipatu dudako norbanakoaren talde integrazioaren modura ulertzea. Integrazio hau, bi taldeena, elkarren aberasgarri modura uler-

“Daramagun bideak ez ote garamatza, zirkuluaren antzera, beti abiapuntura, baso itxian eta laino artean maiz gertatzen zaigun bezala”

tzen da, edo bata besteari bere nahimena ezartzea da, eta ez integrazioa.

Euskara eta euskal kultura gizarte integratzaile bide izango badira gure gizarte osoaren kontestuan ikusi behar ditugu, eta integrazioa elkar aberaste prozesu bezala ulertu.

Euskararen normalakuntza, bere gizartezko erabileran, eta gure gizartearen normalakuntza ezin bereiz daitezke, eta biak elkarrekin loturik planteatu behar dira. Zaila gerta dakiguke parametro hauetan pentsatzen hastea, baina hizkuntz politikan bizi ditugun hainbat impasse gainditzeko beste biderik ez ote dagoen pentsatzen hasia naiz aspaldian.

Hemen azaldutako iritzien oinarrian dagoen gauza bakarra zera da, euskararen erabilera normaltzeko egin behar denaren ardura eta kezka. Hori bai, ardura eta kezka horrentzako askotan hautsi ezinekoak iruditzen zaizkigun pentsamenduzko edo sinesmeneko harresiak gaindituz.

Idatzitakoa berrirakurtzerakoan iruditzen zait ametsetan ihardun ote naizen, eta ez ote dudako amets txarren bat izan, lozorroak ez ote nauen bere mende hartu. Kezkak, beldurrak, ardurak, ametsetan bakarrik etortzen zaizkigu, akorda gaudenean ordea, errealitatea baikorrago izan ohi da, eta horregatik agian egin behar dugun bakarra oraindainen bideari jarraitzea besterik ez da.

Baina, ametsetan bakarrik bada ere: daramagun bideak ez ote garamatza, zirkuluaren antzera, beti abiapuntura, baso itxian eta laino artean maiz gertatzen zaigun bezala?

Ametsetan edo ez, uste dut geure buruari hainbat eta hainbat galdera egiteko garaia iritsi zaigula.